

Aldi baterako ezintasunaren subsidioaren **osagarri** diren hainbat **prestazio** eskaintzen dizkizugu, Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiaren 2019ko urriaren 28ko Ebazpenak arautzen dituenak.

Arau horrek finkatzen du mutualitate guztiei aplikatu beharreko prestazioen katalogoa (ezin da bertan jasotakoez bestelako prestaziorik eman) eta horiek aplikatzeko araubidea ezartzen du. Mutualiako prestazio berezien batzordea arduratzen da prestazio horiek aitortzeaz eta haien zenbatekoa ezartzeaz.

Helburua da laneko istripu edo laneko gaixotasunen bat izan duten langileen egoera edo behar bereziei erantzutea. Lan-gaitasunaren mugak baloratzen dira, bai eta horren ondorioz izandako diru-sarreraren galera ere.

Prestazio horiek onartu ahal izateko, istripua izan duen pertsonaren familia-unitateak muga hauek baino diru-sarrera txikiagoak izan behar ditu hilean:

FAMILIA-UNITATEA	Baja medikoa (aldi baterako ezintasuna) eta ezintasun iraunkor partziala (1,2 LGS)	Baliaezintasun handia (1,8 LGS)	Ezintasun iraunkor absolutua (1,5 LGS)	Ezintasun iraunkor osoa (1,3 LGS)
1 KIDE	1.330 € hilean	1.995 € hilean	1.663 € hilean	1.441 € hilean
2 KIDE (+ 1,2 LGS)	2.660 € hilean	3.325 € hilean	2.993 € hilean	2.771 € hilean
3 KIDE (+ 1,4 LGS)	2.882 € hilean	3.547 € hilean	3.214 € hilean	2.993 € hilean
4 KIDE (+ 1,6 LGS)	3.103 € hilean	3.768 € hilean	3.436 € hilean	3.214 € hilean
5 KIDE (+ 1,8 LGS)	3.325 € hilean	3.990 € hilean	3.658 € hilean	3.436 € hilean
6 KIDE (+ 2 LGS)	3.547 € hilean	4.212 € hilean	3.879 € hilean	3.658 € hilean

(*) LGS = Lanbide arteko gutxieneko soldata.

Eska ditzakeen prestazioen artean, hauek daude: senide laguntzailearen edo ospitaleratutako pertsonaren zaintzailearen joan-etorrietarako laguntza; laneko istripuaren edo laneko gaixotasunaren ondorioz lana galduz gero, lanbide-prestakuntzako ikastaroak; alokairu-gastuak edo hipoteka-mailegua ordaintzeko laguntza, laneko istripuaren edo antzeko egoera zaurgarriaren ondorioz lana galduz gero.

Hemen eskura dituzu ebazpenaren testua eta prestazioen katalogo osoa: www.mutualia.eus

Edozein argibidetarako:

TELEFONOA	POSTA ELEKTRONIKOA
94.404.21.02 (Bizkaia) – 945.00.90.70 (Araba) – 943.42.65.00 (Gipuzkoa)	prestacionesespeciales@mutualia.es